

Raul Fabian Roldan Nariñok bere Tesia irakurri du

2016/06/29

Ekainaren 28ean, goizeko 10:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Raul Fabian Roldan Nariño Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Garaia Berrikuntza Guneko Auditorioan. Tesiaren izenburua: *Inventory routing problem with stochastic demand and lead time*, eta tesi zuzendariak: Rosario Maria Basagoiti eta Leandro Coelho. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- **Mahaiburua:** Eva Barrena Algara (Universidad de Granada) Dk. And.
- **Mahaikidea:** Ignacio Rodriguez Carreño (Universidad de Navarra) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Jose Antonio Alfaro (Universidad de Navarra) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Álvaro García Sánchez (Universidad Politécnica Madrid) Dk. Jn.
- **Idazkaria:** Asier Aztiria Goenaga (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi laburpena:

Inbentarioaren bideratzea arazo zail bat da eta bere esku dago biltegiak noiz, zenbat eta nola hornituko duten saltzaile multzo batek produktu batendako egindako eskaera. Egia da biltegiak eta saltzaileak alde aurretik erabakita eduki behar dutela biltegiak hartuko dutela eskaera horri nola erantzun ondorengo denbora tarteetan. Prozesu hau aurrera eramateko kostuen analisia egin beharko da, bai banaketari lotutako kostuei dagokiena, baita inbentariari dagokion kostua. Tesi honek arazo honi aurre egiten dio metodo meta-heuristikoko eta programazio linealetik datozenak bat eginez, eta hainbat biltegiak aldi berean saltzaile multzo baten eskaerei erantzunez. Emaitzak literaturan aurkitzen diren beste emaitz batzuekiko konparatzen dira eta baita metodo zehatzak erabiliz.

